



Sarrera

Proiektu honen helburua, hiru mailako software arkitektura batean diseinatutako landetxeen erreserbak kudeatzen dituen informazio sistema baten **garapena** izango da. Jarraian sistemaren eskakizunak deskribatzen dira:

Landetxeen elkarteak landetxeen erreserbak kudeatzeko informazio sistema bat garatu nahi du. Sistema bi erabiltzaile mota edukiko ditu nagusiki: landetxeen jabeak eta bezeroak.

Landetxeen jabeek etxeak sisteman txertatu dezakete hurrengo datuak eskainiz: kokapen herria, logela kopurua, bainuak, sukaldeak, jangelak eta kotxe aparkaleku kopurua. Posible izango da, etxearen deskribapen bat ere ipintzea. Sistemaren erregelak behartzen du landetxe guztiek gutxienez sukalde bat, hiru logela eta 2 bainu edukitzea. Edozein momentuan, jabeek beren landetxeak sistematik ezabatu dezakete.


Landetxeen alokairuak egun multzoetan antolatzen dira jabeek nahi duten arabera. Adibidez, landetxe bat abuztuan hamabost egunerako alokatzen da (1etik 15era eta 16tik 31ra), maiatzaren zudia osoa (apirilaren 28tik, maiatzaren 1era), uztailan astero larunbatetik larunbatera, azaroan egunero, etab.... Alokairu tarte bakoitzak bere prezioa du.

Baliatzko bezeroak ez galtzarren, landetxeen kontsultak eta erreserbak egiteko ez da beharrezkoa sisteman erregistratua egotea. Landaetxeak txertatzeko ordea, erabiltzaileek sisteman erregistratuta egon beharko dira.

Landetxeak aurkitzeko, herria izango da erabiliko den bilaketazko parametro nagusia. Sistemak herri horretan aurkitzen diren zerrenda bat itzuliko du. Erabiltzaileak etxe bat aukeratuko du eta sistemak aukeratutako landetxearen ezaugarri guztiak aurkeztu ditu. Erabiltzaileak landetxearen kodea ezagutzen badu, sistemak zuzenean etxe horretara joateko aukera eman beharko du.

Landetxe baten eskaintzak ikusteko, erabiltzaileak landetxea, sarrerako eguna eta jarraian alokatu nahi dituen egun kopurua ipiniko du. Eskaintzak ezin dira zatikatu, hau da, eskaintzaren egun multzo guztia alokatzen da edo ez da posible alokatzea. Erabiltzaileak eskatutako egunetarako, eskaintza bat ez badago, sistemak erabiltzailearen eskaera partzialki betetzen dituzken eskaerak itzuliko ditu. Adibidez, landetxe baten eskaintzak 5/5-7/5, 10/5-14/5 eta 17/5-20/5 badira, eta erabiltzaileak 3/5-etik aurrera 15 egun alokatu nahi badu, sistemak eskaintza oso bat aurkitu ez duenez, hurrengo eskaintzak itzuliko ditu: 5/5-7/5, 10/5-14/5.

Landetxe baten erreserba egiteko, erabiltzaileak etxearen kodea, sarrerako eguna eta jarraian alokatu nahi dituen egun kopurua ipiniko ditu. Sistemak erabiltzaileak eskatu dituen egunetarako alokairu denboraldi libre bat dagoela frogatuko du eta libre badago, jabearen kontu korrontea agertuko zaio, erabiltzaileak alokairuaren erreserba egin dadin eta erabiltzaileari bere telefonoa eskatuko zaio eta erreserba egingo da. Landetxearen jabeak bere kontu korrontean transferentzia ikusten duenena erreserba ordainduta bezala ipiniko du.



Eskatzen da:

1. Landetxeen eskakizun bilketa egitea, hau da, erabilpen kasuak, gertaera fluxuak eta domeinuaren ereduak lortzea.
2. Landetxeen eskakizunetik, sistemaren diseinua egitea, hau da, sekuentzia diagramak eta diseinuaren ereduak lortzea.
3. Landetxeen diseinutik, aplikazioaren implementazioa kudeatzea.